



## **GASA INSTALATZEKO LIZENTZIA.**

### **1.- Proiekturik behar ez duten instalazioak jartzeko aurkeztu behar agiriak:**

- \* Gas hartzaileak izango duen instalazioaren Proposamen Teknikoa, Tekniko Instalatzaileak egina eta enpresa instalatzailearen zigilua duena. Proposamenak, halaber, Etxejabeen Elkarteko Lehendakariak sinatua eta Hornitzaile Etxeak ikus-  
onetsia behar du.
- \* Proposamena idatzi duen Teknikoak gasa instalatzeko duen baimenaren fotokopia.
- \* Kanpoko nahiz barneko fatxada guztien koloretako argazkiak, non aurreikusitako instalazioa seinalaturik dagoen.
- \* Aurrekontua, kontzeptu eta obra-unitateetan zehazturik.
- \* Etxejabeen Elkarteko Akta Liburuaren fotokopia, gas naturala hartu ahal izateko instalazioa jartzeari buruzko erabakia dakarrena edo lehendakariak horri buruz emandako ziurtagiria.

### **2.- 1627/97 EDko 4 artikuluan zehaztutakoarekin bat, proiektua behar duten lizentzietarako ondoko agiriak aurkeztu behar dira:**

- \* Gasa instalatzeko obren proiektuak (Tekniko eskudunak idatzitakoak eta Elkargo Profesionalak behar bezala ikus-onetsitakoak) 450.759 eurotik gorako (75 milioi pezetatik gorako) aurrekontua baldin bada; 30 lanegun baino gehiagoz gauzatuko bada; uneren batean, 20 langiletik gora jardunean izango baditu; laneskua guztira 500 lanegunetik gorakoa izango bada edo aipatu obrak tuneletan, galeriatan, lurrazpiko eroanbidetan eta presatan gauzatuko badira, aipatutako proiektua aurkezteaz gain, Segurtasun eta Osasun txostena ere entregatu beharra dago eskatutako lizentzia lortzeko.

### **3.- Gas erregaiak hartuko dituzten instalazioak martxan jartzeari nahiz berorien dokumentazioari buruzko eta baimendutako gas instalatzaileei zein enpresa instalatzaileei buruzko 1985eko abenduaren 17ko Aginduan xedatutakoarekin bat, proiektua behar duten lizentziak lortzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira:**

- \* Teknikari eskudunak idatzitako Proiektua aurkeztu beharra dago derrigor. Proiektuak, ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak biltzen baditu, Elkargo Profesionalaren ikus-onetsia behar du:
- Aldi berean (60.200 kkal./h.) 70 KW-etik gorako potentzia izendatua duten banakako instalazioak
- Aldi berean (602.000 kkal./h.) 700 KW-etik gorako potentzia izendatua duten barnealdeko harguneak edo/eta komuneko instalazioak.
- 4 bar-etik gorako presio altuko sareetatik energia hartzen duten instalazioak, duten potentzia dutela.
- Botilak edo edukinontziak dituzten GLP instalazioak:
  - 15 kilotik beherako botilak dituztenak, guztira 200 kilotik gora har ditzaketenak.
  - 15 kilotik gorako botilak dituztenak, guztira 350 kilotik gora har ditzaketenak.
- Instalazio bereziak, zeinetan berezko arauetan hala jasota dagoen.
- Aurrez proiektua zuten instalazioak, baldin eta aldi bereko beren potentzia izendatua % 30 baino gehiago handitu bada.
- Proiektuarentzat eskatutako aldi bereko potentzia izendatua gainditzen duten zabalkuntzak, betiere, aurrez proiekturik ez bazegoen.
- \* Kasu horietan guztietan, Proiektuaz gain, Segurtasun eta Osasun txostena ere aurkeztu beharra dago.

#### **4.- Zabalkuntza (Komunitateetan existitzen diren instalazioei gauza berriak gehitzea).**

Existitzen den gas instalazioaren zabalkuntza moduan izapidetuko da.

- Eraikinean gasa instalatzeko bere garaian ateratako lizentziaren fotokopia.
- Aurrekontu zehaztatua.
- Etxaurrearen argazkia.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.